

## **MOZIO ARRUNTA, GI-20 ERREPIDEAREN EKIALDEKO BARRUTIKO ZATIAREN ERAGIN AKUSTIKOA DELA ETA**

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, GI-20 errepidearen Ekialdeko barrutiko zatiaren eragin akustikoa dela eta.

### **JUSTIFIKAZIOA**

213/2012 Dekretuan ezarri bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak zarata mapak eratu zituen, 2018an, egunean 6.000 ibilgailu baino gehiagoko trafikoa duten errepide guztietarako, foru errepideek sortzen duten inpaktu akustikoa neurtzeko. Aztertutako errepideen artean dago GI-20 Donostiako saihesbidea, bere luzera osoan.

GI-20aren Donostiako zatia Altza eta Intxaurrendotik barrena igarotzen da, eta eremu horiei dagokien neurketak argiki erakusten du horietan 55 eta 74 dB(A) arteko zarata mailak pairatzen direla. Nabarmentzekoak dira Larratxo parean, Larratxo pasealekuko Gure Ametsa auzunean neurtutako 60-64 dB(A)-k, Julimasene kalearen eta Zandardegi bidearen arteko auzunean gertatu bezala; kontuan izatekoa da Larratxok hektareako 163 etxebizitzako dentsitatea duela, eta GI-20ak bete-betean eragiten diola auzoarentzat funtsezko aisia gune den Lauaizeta parkeari (55 eta 74 dB arteko zarata mailak). Ekialdeko Barrutiaren Plan Estrategiko osatzeko parte hartze prozesuan bertan, herritarrek hegoaldean dauden berdeguneetatik hurbilen dauden bizitegi eremuak nabarmendu zituzten, eragin akustiko horren eragin handiena jasan duten gunetzat.

Errepideetan zaratari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintza planak (2019ko abendua) 55 dB (A)-tik gorako mailen eraginpean dagoen biztanleria, 2023. urtea baino lehen, % 5etik behera murriztea du helburu. Aldundiak, ordea, ez du neurrik proposatu aipagai dugun GI-20 errepidearen tarterako.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

### **MOZIOA ARRUNTA**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari azter dezala, Donostiako Udalarekin eta mozioan aipagai dugun errepidearen tarteko bizilagunen ordezkariekin batera, neurri zuzentzaileak hartzeko aukera, GI-20 errepidearen Ekialdeko barrutiko zatiaren eragin akustikoa apaltzeko.

Donostian, 2023ko otsailaren 3an

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldearen bozeramailea